

AUSTRALIA. 'Manoora' itsasontzira eraman dituzte, 'Tampa'-ko etorkinekin batera

Beste 237 etorkin atzeman dituzte ontzi batean

Immigrazio legeak gogortu egingo dituztela adierazi du John Howard lehen ministroak

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Australiako agintariek 237 etorkin zeramatzen ontzia atzeman zuten herenegun gauean Timorko itsasoaren eta Indiako Ozeanoaren arteko uretan. Australiarako bidea zeraman ontzi horrek. Ontzia atzeman bezain laster, *Tampa*-ko etorkinekin batera, Armadako *Manoora* itsasontzian eraman zituzten etorkinak, Nauru eta Papua Ginea Berrirantz.

Indonesiako ontzia Australia-ko Ashmore uharterantz zihoan ostiral ilunabarrean, *Warramunga* itsasontziak atzeman zuenean. Balin erregistratua zen Indonesiako ontziak zeramatzen 237 etorkinetatik laurogeita hamabi emakumezkoak ziren.

'Tampa'-ko etorkinekin batera

Nazioarteko uretan harrapatu zuten etorkinen ontzia. Australiako lehen ministro John Howard-ek atzo adierazi zuenez, kostazainek ontzia geratzeko agindua eman eta etorkinek jaramonik egiten ez zietela ikusi ondoren, ontzia harrapatu eta etorkinak *Manoora* itsasontzira eramanez izan ziren, *Tampa*-ko 433 etorkinekin batera. Orain *Manoora* itsasontziak Nauru eta Papua Ginea Berrirako bidaiarekin jarraituko du, hornidura berriak jaso ostean.

«Esku-hartzea Indonesiako Gobernuak eskatu zuen», nabarmendu zuen Howard lehen ministroak, eta «ontzia nazioarteko uretan harrapatu dutenez, etorkinek ez dute Australian

asilo eskaera egiteko aukerarik».

Azken gertaera honen aurrean, Zeelanda Berriko eta Nauruko gobernuek Afganistango etorkinekin duten konpromisoari eutsiko diotela adierazi dute, hau da, Indonesiako ontzian atzemandako etorkinak ez dituztela euren esku hartuko.

Lege aldaketa


Azken etorkinak atzeman ondoren, John Howard lehen ministroak etorkinen inguruko legeak gogortuko zituztela esan zuen. Lege berria onartu ondoren, etorkin estatusa lortu nahi izanez gero, aurretik Australiako uharte nagusira iritsi behar dute etorkinek. Australiako uharte txikietara iristea ez da nahikoa izango asilo eskaera egiteko.

«Legea indarrean jarri ondoren Christmas eta Ashmore irlak ailegatzen diren etorkinak izango dira kaltetuenak, ez baitute asilo eskaera egiteko aukera izango», lehen ministroaren arabera.

Ostiralean Australiako ministroen ordezkartza bat Jakartan izan zen etorkinen inguruan akordio bat iristeko asmoz. Baina bi aldeen arteko akordioak huts egin ondoren etorkinen inguruko asilo eskaerak aztertze-ko kontua bertan behera geratu zen.

Australiako eskubide zibilen aldeko talde bat *Tampa*-ko etorkinen asilo eskaera ez aztertze-agatik aurkeztutako helegitearen zain dago oraindik.

Beren ontzia hondatu ondoren, *Tampa* itsasontziak salbatu zituen 433 etorkin afganistandarrek, Christmas uhartetik. HO-TAMPA / EPA



Nora ezean

AFGANISTANGO ETORKINAK. Kabuldik milaka etorkinek ihes egiten dute urtero bizimodu hobearen bila, Europa edo Australia helmuga. Baina haietako asko bidean gelditzen dira. 'Tampa' itsasontziaren aferak azaleratu du haien egoera.

Aitziber Salaberria | **DONOSTIA**

Ugariak dira egunero-egunero, Afganistandik at etorkizun oparagoa bilatu asmoz bizitza arriskatzen duten afganistandarrek. Bidaiak luzeak egin izan ohi dituzte, horietatik gehienak inor gutxi ohartu gabe gertatu izan dira, baina ezin ahanzi azken asteotan jazo den *Tampa* itsa-

sontzi norvegiarrak zeramatzen 433 etorkinen afganistandarren aferra. Etorkinen ontzia Indonesiako uretan hondatu ondoren, *Tampa* itsasontzi norvegiarrak erreskatatu eta zortzi egun igaro zituzten non lehorreratu ez zekitela, Australiak horretarako baimena ukatu ondoren.

Duela 22 urte hasi ziren Afganistango populazioaren migrazioak. Herrialdean bertan bizi

zen egoera izan zen berau bultzatu zuen arrazoi nagusia. Besteak beste; 1981eko Samur iraultza, herrialdearen egoera ekonomiko eskasa, lehorreak eta taliban erregimen gogorra izan dira argudioak. Arrazoiak arrazoi, *Tampa* itsasontziaren kasua izan da Afganistango egoera berriro gogorra ekarri eta Mendebaldeko immigrazio politika gogorra agerian utzi duena. Krisia eta herrialdeak bizi duen egoera txarra dela medio, azken hogeitaz bi milioi herritarrek utzi dute sorterrria. Bi pausotan egin izan ohi dituzte bidaiak. Pakistan nahiz Iran dira lehenengo pausoa osatzeko helmugak. Bertara iritsi ondoren, Australia, Alemania eta Erresuma Batua dira ondorengo helmugak eta etorkinen helburu nagusiak.

Bidaia luzea, arriskutsua

Asko aldiz lehenengo pausoa egin eta bigarrena ase gabe geratu izan ohi dira. Horietariko

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**LEHEN MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO TITULUA
(TEKNIKARI LAGUNTZAILEA)
LORTZEKO ESKOLAKOEZ BESTEKO IKASKETEN
EBALUAZIO-SAIOTARAKO DEIALDIA**

Lehen mailako Lanbide Heziketako titulua (Teknikari Laguntzailea) lortzeko azterketa egunak irailaren 12 eta 13an izango dira. Informazio gehiago jaso nahi dutenek izenaematea eman duten ikastetxeetan jaso dezakete.

Zuzendari-gerentea (Erref. "KOM")

Gipuzkoako Komunikazio enpresa berri batek Zuzendari-gerentea behar du. Euskal komunikazioaren eta multimediaren ezagutza duen norbait nahi dugu, Ekonomiako edo Enpresa Zientzietako lizentziaduna, Ingeniaria edo pareko titulua duena, harreman publikoetarako eta salmentarako gaitasunarekin eta talde-gidari eta dinamizatzaile izateko ahalmenarekin.

Lan-baldintzak elkarren artean adostuko ditugu.

Interesatua bazaude, bidali zure curriculum eta argazkia, irailaren 19a baino lehen, Donostiako 572 posta-kutxara.